



eskola publiko euskalduna, demokratikoa eta laikoaren alde



ESKUALDE BILERETARAKO INFORMAZIOA / 2015ko iraila

1.- BAIKARAK IGEari buruz dituen datuak berritzea eta eskaintzen dituen zerbitzuak gogoratzea.

Bilerarako deialdiarekin batera, "Baikarak IGEari buruz dituen datuak – 2015ko iraila" izeneko dokumentu bat atxiki dugu. Dokumentu horretan IGEari buruzko informazioa agertzen da, hiru ataletan banatuta:

- A atala: IGEaren identifikazio datuak: izen ofiziala, IFK zenbakia eta ikastetxearen datuak.
- B atala: Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan IGEari buruz bilduta dauden datuak: erregistro zenbakia, altaren data eta erregistratutako azken Zuzendaritza Batzordearen datuak. Azken datuari arretaz begiratu behar zaio; izan ere, Erregistroan adierazitako azken Zuzendaritza Batzordeko kide gisa ageri diren pertsonen dagokie IGEaren legezko ordezkariak. Izendatutako azken Zuzendaritza Batzordea Erregistroan ez adierazteak, beraz, arazo legalak ekar diezazkioke IGEari. Horregatik, oso garrantzitsua da Zuzendaritza Batzordean aldaketaren bat egiten den aldi oro Elkartearen Erregistroan aldaketa horren berri ematea. Horretarako biderik errazena BAIKARArekin harremanetan jartzea da, Federazioa ardura dadin egin beharreko izapide guztiak egiteaz.
- C atala: BAIKARAK IGEarekin harremanetan jartzeko dituen datuak agertzen dira. Atal honetan ere, garrantzi handikoa da datuak behar bezala eguneratuta edukitzea, IGEaren eta Federazioaren arteko harremana bermatzeko, eta Federazioak IGEarekin harremanetan jarri behar izanez gero une horretan Zuzendaritza Batzordean dauden kideengana zuzenean jo ahal izateko. Hori dela eta, komeni da Zuzendaritza Batzordean aldaketarik eginez gero Federazioari aldaketa horien berri ematea.

Era berean, aurreko urteetan bezala, zerbitzuei buruzko beste dokumentu bat bidali dugu. Hain zuzen ere, BAIKARAK IGEei eskaintzen dizkien zerbitzuen berri ematen da dokumentu horretan, labur-labur. Horrez gainera, Federazioko langileen organigrama ere agertzen da, baita BAIKARAN lanean ari garen pertsonekin harremanetan nola jarri ere. Dena den, harremanen arlo horretan azken egunetan gauzatutako aldaketa batzuen berri eman behar dizuegu, ez baitaude dokumentuan jasota. Hemendik aurrera, webgunerako eta posta elektronikorako "baikara.eus" domeinua erabiliko du BAIKARAK, orain arte erabiltzen zuenaren ordez ("baikara.org"). Hala, gure webgunearen helbidea honako hau izango da aurrerantzean: www.baikara.eus. Eta posta elektronikoko helbide guztiak ".eus" amaiera izango dute, ".org" amaieraren ordez. Adibidez, " baikara@baikara.org" helbide elektronikoa baikara@baikara.eus bihurtuko da, eta aldaketa bera egingo da Federazioko langileek erabiltzen dituzten gainerako helbide elektronikoetan.

Dena dela, komunikazioa eten ez dadin, aldi batez indarrean jarraituko du ".org" domeinuak ere; baina komeni da IGEek aldaketa hauek kontuan hartzea eta lehenbailehen hastea helbide berriak erabiltzen.

2.- 2015-2016 ikasturterako lan plangintza

Aurreko ikasturteetan bezala, hiru eskualde bilera egiteko asmoa dago 2015-2016 ikasturtean. Irailekoaz gainera, honako beste bi data hauetan egingo dira bilerak:

- Urtarrileko eskualde bilerak: urtarrilaren 25etik otsailaren 1era bitartean.
- Maiatzeko eskualde bilerak: maiatzaren 9tik 16ra bitartean.

Ohiko Batzar Orokorra azaroko lehen larunbatean egingo da, ohi bezala. Azaroaren, 7an, izango da, beraz; baina ez ohiko tokian. Orain arte, Beasainen izaten zen, baina aurten **ZARAUTZEN** izango da, **Lizardi Institutuko Batxilergoko Eraikinean**, Araba kaleko 18an, Zarauzko Udal Kiroldegiaren alboan. Aldaketa horren bidez, IGEen partaidetza sustatu nahi dugu, IGEek gehiago parte hartzea beren intereseko gaiei buruzko eztabaidan. Eztabaida sustatzearen, murriztu egingo da Federazioko koordinatzailearen azalpenen txandaren iraupena, eta ahalik eta denbora gehien emango zaie IGEei, parte har dezaten. Azken urteetan Batzarra egiteko erabili den lokala (Beasaingo kiroldegia) ez zen era horretako eztabaidak bultzatzeko egokia, eta iruditzen zaigu Zarauzko Lizardi Institutuan baldintza hobek izango ditugula Batzarrean bultzatu nahi dugun eztabaidak egiteko.

Batzarreko aztergaietako bat BAIKARAREN Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza izango da. Une honetan, zenbait kargu daude hutsik; hala, Zuzendaritza Batzordean ordezkariak izateko interesa duten IGEei dei egiten diegu Federazioarekin harremanetan jar daitezen.

3.- LOMCE eta HEZIBERRI dekretuak ezartzea

LOMCE legea ezartzeko egutegiaren arabera, 2015-2016 ikasturtean amaitu behar da Lehen Hezkuntzako ezarpena eta hasiko da Bigarren Hezkuntzako, jarraian adierazten den moduan:

- Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailetan dagoeneko ezarritako neurriak 2., 4. eta 6. mailetan ezarriko dira 2015-2016 ikasturtean. Hala, Erljioa aukeratzen ez duten etapa osoko ikasleei ezarriko zaie Balio Sozial eta Zibikoak ikasgaia ordezeko nahitaezko ikasgai gisa, biak ere ebaluagarriak direla; eta etapa osoan banatuta egongo da Gizarte ikasgaia bitan (Naturaren Zientziak eta Gizarte Zientziak). 4. mailako proba diagnostikoa desagertu egingo da, baina ebaluazio bat egingo da 3. mailan. Ebaluazio hori aurreko ikasturtean ezarri zen, modu esperimentalean, Erkidegoko 30 ikastetxetan, baina, azkenean, familiek ez zuten onartu beren seme/alabek proba hura egitea, aurreikusitako ikastetxeen erdietan baizik ezin izan zuten ezarri neurri hori: aurreikusitako ikastetxe publiko gehienetan ez zen probarik egin. 2015-2016 ikasturtean, ordea, 3. mailako ikasle guztiei egin nahi zaie proba. Bestalde, Hezkuntza Sailak LOMCEn agertzen den beste proba bat ezartzeko asmoa ere badu, Lehen Hezkuntza amaitzen duten 6. mailako ikasleena hain zuzen. Dekretu proiektuaren testuaren arabera –oraindik ez da argitaratu– *“Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ebaluazioa ikastetxetik kanpo egingo da, eta ikasleak nahiz taldeak honako gaitasun hauek zenbateraino menderatzen dituzten adieraziko du: hizkuntza eta literatura gaitasuna (euskara, gaztelania eta ingelesa), matematikarako gaitasuna eta zientziarako gaitasuna. Barne hartuko du ahozko adierazpena, kasu honetan, lagin modura.”* Ebaluazio hori antolatzea Autonomia Erkidegoaren ardura den arren, ez daukagu oso argi ebaluazioaren edukia zer hezkuntza administrazioek erabakiko duen.
- Bigarren Hezkuntzan ere ezartzen hasiko da, DBHko 1. eta 3. mailetan eta Batxilergoko 1. mailan zehazki. Ikasturte honetan, aldaketa nagusi hauek egin beharko lirateke:
 - Erljioko ikasgaiaren tratamendua aldatu egingo da DBHko 1. eta 3. mailetan: Lehen Hezkuntzan bezala, Erljioa aukeratzen ez duten ikasleak Balio Etikoak ikasgaia egitera behartuko ditu legeak, eta bi ikasgaiak izango dira ebaluagarriak eta espediente akademikorako baliozkoak. Batxilergoko 1. mailan, berriz, Erljioak ez du izango nahitaezko ordezeko ikasgaiarik, eta hautazkoa izango da; hala, gaur egungo legediari jarraituz, 15 ikasle beharko lirateke, gutxienez, taldea osatzeko eta ikasgaia eskaintzeko.
 - “Herritartasunerako Hezkuntza” ikasgaia desagertuko da, eta aldaketak egingo dira beste ikasgai batzuen izen eta edukietan.
 - LOMCEri jarraituz, DBHko 3. mailan bi motatako matematikaren arteko aukera egin beharko dute ikasleek: Irakaskuntza Akademikoetara bideratutako Matematika eta Irakaskuntza Aplikatueta bideratutako Matematika, DBHko 4. mailan ibilbideen arteko behin betiko aukera egiteari begira: LH edo Batxilergoa. Edonola ere, Hezkuntza Saila DBHko 4. mailan ikasleak bereiztearen kontra agertu da, eta matematika mota horien curriculumak antzekoa izango dela iragarri du; horrela, ikasle guztiek bermatuta izango dituzte titulua eskuratzeko DBHko 4. mailan gainditu beharreko errebalidak gainditzeko beharrezko ezagutzak.

2016-2017 ikasturtera begira, Bigarren Hezkuntzan berrikuntza guztia ezarri ondoren, kanpo ebaluazioak (errebalidak) egiten hasiko dira, DBHko eta Batxilergoko tituluak eskuratzeko gainditu beharrekoak. Ikasturte horretan, proba horiek ez dute balio akademikorik izango, baina bai 2017-2018 ikasturtetik aurrera. Oraindik ez dago proba horien ezaugarriak buruzko xehetasunen berri, Hezkuntza Ministerioak proba horiek arautzeko dekretuaren zirriborroa atzera botatzea erabaki baitzuen abuztuan, probak autonomia erkidegoekin adostearren.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da aipatu ditugun neurriak 2015-2016 ikasturte hasieran ezartzen hasi direla, baina Euskadiko Aldizkari Ofizialean oraindik ez direla argitara eman aldaketa horiek arautuko dituzten dekretuak, Heziberri 2020 proiektuan sartuak. Hala, iruditzen zaigu prozesu nahiko kaotikoa gertatzen ari dela Heziberri 2020 proiektuaren dekretuak eta Euskadin LOMCE ezartzearekin zerikusia duen guztia ezartzeko prozesua, eta zalantza asko dakartzala ikastetxeen plangintza osatzeko prozesuan.

4.- Ikasle etorkinen datuen azterketa eta IGEen jarrera.

Aurreko ekinaren erdialdera, 2014-2015 ikasturtean zehar Euskadin nahitaezko hezkuntzan eskolatutako ikasle etorkinei buruzko datuak helarazi zizkigun Eusko Legebiltzarrak. Datu horien azterketa xehea egin eta orain dela bost urte bildutako datuekin alderatu ondoren, eskolatzeko horren nondik norakoen berri badugula esan daiteke. Baina Gipuzkoako datuen azterketa konparatiboa egiteaz gainera, udalerrri bakoitzeko datuak ere atera ditugu, IGEek errealitatea ikus dezaten, ez beren ikastetxeari dagokiona soilik, baita udalerriko eta eskualdeko ikastetxe guztiena ere. Bilerarako deialdiarekin batera, gai honi buruzko informazioa igorri zitzaizen IGEei. Informazioa taulen bidez dago adierazita; hor agertzen da udalerrri bakoitzeko ikasle kopurua eta sareen arabera banaketa, ikasle etorkinen kopurua eta sareen arabera ehunekoak. Era berean, zehaztuta dago azken bost urteetan ikastetxe publikoetan ikasle etorkinen kopuruetan izandako bilakaera, baita ikastetxe bakoitzeko ikasle etorkinen kopuruari buruzko informazio xehea ere, kontuan hartuta sare publikoak nahiz pribatu-itundua. Horrela, IGE bakoitzak bere udalerrri eta eskualdeko egoeraren berri jaso, eta ondorioak atera ahal izango ditu.

Gipuzkoako datu orokorreari dagokienez, honako ondorio hauek dira nabarmentzekoak:

- Bost ikasturtetan (2010-11ko ikasturteko datuak eta 2014-15ekoak alderatuta) ia sei puntu handitu da sareen arteko desoreka (% 5,92), atzerriko ikasleak eskolatzeari dagokionez: sare publikoan eskolatu dira ikasle horien % 62,66, 2010-2011 ikasturtean, eta % 68,58, berriz, 2014-2015 ikasturtean.
- Azken bost ikasturteetan, ikasleen mugimendu handia izan da Espainiako estatuko gainerako lurraldetatik Gipuzkoako eta Euskadiko gainerako lurraldetara. Gipuzkoan, azken bi urteetan epe kanpo matrikulatu dira urteko milatik gora ikasle, kalkuluen arabera. Azken lau urteetan atzerriko ikasleen kopuruan 841 ikasleko igoera izan denez, ondorioztatzen da ikasle atzerritarak jatorrizko herrialdeetara itzultzeko mugimendua ere izan dela, baita ikasle horiek nazionalizatzeko prozesuak ere, Espainiako estatuan zenbait urte egin ondoren.
- Kopuruek erakusten dutenez, halaber, azken lau urteetan epe kanpo matrikula egin duten ikasle gehienak sare publikoan eskolatu dira.
- Datu deigarria da, era berean, salbuespenak salbuespen, azken lau ikasturteetan Gipuzkoara iritsitako atzerriko ikasleak lehendik ere atzerriko ikasleen kopuru altua zuten ikastetxeetan eskolatu direla oro har.
- Atzerriko ikasleak hartu dituzten ikastetxeen kopurua eta ehunekoak:

Atzerriko ikasleen ehunekoa	Sare publikoa (Eskola Txikiak kanpo)	Sare pribatua-itundua
%5etik behera	44 ikastetxe (%35,7)	58 ikastetxe (%71,6)
%5 eta %10 bitarte	35 ikastetxe (%28,5)	16 ikastetxe (%19,8)
%10 eta %15 bitarte	25 ikastetxe (%20,3)	3 ikastetxe (%3,7)
%15 eta %20 bitarte	6 ikastetxe (%5)	0 ikastetxe
%20tik gora	13 ikastetxe (%10,5)	4 ikastetxe (%4,9)

- Bistan da desoreka nabarmena dagoela sare publikoaren eta pribatuaren artean, eta datuak irakurrita argi ikusten da, orobat, atzerriko ikasleak eskolatzeko garaian desorekak daudela hezkuntza sare bakoitzaren baitan ere ikastetxe batetik bestera.

Datu horiek guztiak irakurri eta interpretatuta, agerian gelditzen da gogoeta sakona eskatzen dutela Hezkuntza Sailak ikasle etorkinen eskolatzeari buruz bideratutako politikak eta politika horrek euskal hezkuntza sistemari ekarritako ondorioek. Bistan da izugarritzko desoreka dagoela ikasle etorkinak sare publikoan eta sare pribatu-itunduan banatzeko garaian nahiz sare beraren baitako ikastetxeen artean, eta arriskua ikusten da ikastetxe batzuk eskola-ghetto bihurtzeko.

Gai honekiko kezka handia dute gero eta IGE gehiagok, eta, hala, BAIKARAren ikasturte honetarako lehentasunezko helburuetako bat da IGEen artean gaiari buruzko eztabaida sustatzea eta akordioak lortzen saiatzea, elkarrekin ekimenak bideratzeko, udalerrietan nahiz lurralde osoan, erakunde publikoei nahiz gizarte osoari begira. Azaroaren 7ko Batzar Nagusian gai hau izango da, hain zuzen ere, eztabaidagaietako bat.

5.- Eskola garraioa

2014-2015 ikasturtean zehar, mahai gainean izan dugu eskola garraioaren auzia, eskola garraiorako eskubidea duten ikasleen kopuruaren murrizketak eta, horren ondorioz, Gipuzkoako ikastetxe publikoei zerbitzua ematen zieten autobus kopuruaren murrizketak eragindako salaketa zela eta. Martxoan bilera bat egin zen IGE interesdunekin; 12 elkartek parte hartu zuten bilera hartan. Datu egiaztaturik ez zegoenez eta eskola garraioa arautu behar zuen dekretuaren argitalpena atzeratu egin zenez, ordea, ez zen inolako ekimenik proposatu gai honekin loturik.

Ikasturte honen hasieran ikusi dugunez, 2015eko maiatzaren 22an argitaratu zen dekretua, eta baditugu, halaber, 2014-2015 ikasturteko eskola garraioaren egoera errealari buruzko datu batzuk, Eusko Legebiltzarrak emanak. Dekretu berriaren testuan ez da ia aldaketarik ageri eskola garraioaren erregulazioari buruz; izan ere, Hezkuntza Sailak orain arte argitara emandakoen ia berdinak izango dira zerbitzu hori erabiltzeko baldintzak aurrerantzean ere. Hau da, eutsi egingo zaie bizitokiaren eta ikastetxearen arteko distantziei -2 km, Haur Hezkuntzan (2 urteko haurrek izan ezik, ez baitute eskola garraiorako eskubiderik), Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1. zikloan; eta 4 km, DBHko 2. zikloan. Dena dela, zera dio, hitzez hitz, dekretu berriaren 6. artikulua, 2 e) atalean:

Salbuespen gisa, eta 5. artikuluko c) idatzi-zatian aipatu distantzia-betekizuna konpliztea eskatu ezin bada ere, honako kasu honetan ere eman ahal izango da garraioa behin-behinean erabiltzeko baimena: ikastetxearen kokapenaren ondorioz joan-etorrietarako zailtasun bereziak badira, eta kontuan izanik zonako hezkuntza-eskaintza, betiere dekretu honetako 12. artikuluan aipatu Batzordearen alde aurretiko txostena delarik. Salbuespena esplikatu eta arrazoitu egin beharko da; betiere, zein zio konkretuetan oinarritzen den adierazita, eta urtero berrikusi beharko da.

Kontua da ikastetxe gutxitan aplikatu dela salbuespen hori, eta, gainera, tresna informatikoei esker, zorrotz eta oso modu murriztailean neurtu dira distantziak.

Datuei dagokienez, Hezkuntza Sailaren erantzunaren arabera, 15 eskola ibilbide soilik ezabatu ziren Gipuzkoan; hala, 144 ibilbide ziren 2013-2014 ikasturtean, eta 129 onartu zituzten 2014-2015 ikasturterako. Baina egia bada ere 129 ibilbide onartu dituztela, jasotako datuen azterketa xehetik ondorioztatu dugu 32 ikastetxeri eragin dietela autobus zerbitzuaren murrizketek, eta kasu batzuetan autobus bat baino gehiago kendu zaizkiola ikastetxe berari. Alde horren arrazoia da ibilbide kopuru jakin bati eutsi arren ibilbide horiek ikastetxe gutxiagori emango dietela zerbitzua. Hala, Hezkuntza Sailaren datuak erdi egia direla esan liteke, erantzunean ez baita adierazten murrizketek benetan zenbat ikastetxeri eragingo dieten, ezta ematen ere murrizketa horiek eragingo dieten ikasleen kopurua ere.

Ildo horretatik, litekeena da Federazioak datu zehatzagoak eskatzea Hezkuntza Sailari, eta, Eusko Legebiltzarraren bidez, berriro ere galdetzea zergatik egin diren murrizketak eta zergatik ezabatu zaien 32 ikastetxeri zerbitzua, baita murrizketek eragingo dien ikasle kopuru zehatza zein den ere.

Edonola ere, datu zehatzagoak lortu nahiz ez, bistakoa da Gipuzkoan eskolako autobus zerbitzuan murrizketa nabarmena egin dela, eta IGEEK aztertu beharko lukete nola aurre egin egoerari.

6.- Rural Kutxa- Caja Rural bankuak IGEEi begira egindako finantza proposamena.

Federazioan kexa asko jaso ditugunez banku zerbitzu batzuen kostuak IGEEtako kontuetan dituen ondorio ekonomikoak direla eta (erreziboen kudeaketa, banku komisioak, diru-sarrerak esku-dirutan egiteko ordutegia mugatzea, etab.), BAIKARAK akordioa egin du CAJA RURAL-RURAL KUTXA entitatearekin, IGEEK orain ordaintzen dutena baino dezente merkeago izan ditzaten zerbitzu horiek. Akordio horren onuradun izateko interesa duten IGEEK aski dute komeni zaien Caja Rural entitatearen bulegora joatea; jakina, ez Federazioak ez IGEEK ez dute horretarako inolako konpromisorik.